



Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea elkartu da Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 3ko 16:30ean, Administrazioak utzitako lokalean; eta bertan kide hauek egon dira:

Joaquín Giménez García jauna, batzordeburua
Ricardo Egiguren Mendieta jauna
Francisco Javier Hernáez Manrique jauna
José Antonio Nieto Antón jauna
Estefanía Ocáriz Passevante andrea
Miren Ortubay Fuentes andrea

Lehen puntua.- 2021-02-26ko akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.
Batzordeak, akta irakurri ondoren, 2021eko otsailaren 26ko bileraren akta onartzea erabaki du.

Bigarren puntua.- Batzordeko idazkaria izendatzea

Batzordeak erabaki du Francisco Javier Hernáez Manrique jauna batzordeko idazkari izendatzea, eta idazkari-lanak egingo ditu bere ordean beste kide bat izendatzea erabakitzen den arte edo dimisioa eman arte.

Hirugarren puntua.- Funtzionamendu irizpideak.

Funtzionamenduaren arloko Batzordeak erabaki du iritzia emateko heltzen zaizkion gaiei identifikazio-urte eta -zenbaki korrelatiboak jarriko dizkiela.

Laugarren puntua.- Getxoko Udaleko Herritarren Segurtasuneko zinegotziaren eskaerarekin lotutakoa

Batzordeko kide guztiek Getxoko Udaleko Herritarren Segurtasuneko zinegotziaren idazkiari dagokion 2021/1 gaia eta horri buruzko dokumentazio gehigarria aztertu dituzte eta erabaki dute 2020ko uztailaren 24ko gertakariak aztertzearen eskaera ez onartzea, Batzordeak ez baitu eskaera horri erantzuteko eskumenik, EAEPLren 19.4 artikulua ezarritakoaren arabera, gertakari horiek judizialki ikertzen ari direlako. Batzordeburuari eskatu zaio erabakia idazteko.

Eta lantzeko gai gehiagorik ez dagoenez, bilera egun horretako 18:30ean amaitu da.